

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak “El monasterio cisterciense de Tulebras” (“Tulebrasko monasterio zistertarra”) liburua aurkeztu du

*Nafarroako Gobernuak argitaratua eta María Josefa Tarifak idatzia, penintsulako lehen emakume zistertar komunitatearen historia, arkitektura, artea eta eguneroko bizitza aztertzen ditu*

Martes, 23 de octubre de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria “El monasterio cisterciense de Tulebras” (“Tulebrasko monasterio zistertarra”) liburuaren aurkezpen ekitaldiaren buru izan da gaur arratsaldean Tulebrasko Santa María de la Caridad monasterioaren elizan. 1157. urtean, penintsulako lehen emakume zistertar komunitatea ezarri zen monasterioaren historia, arkitektura, artea eta eguneroko bizitza aztertzen ditu lanak.



Barcina Lehendakariak Tulebrasko monasterioaren liburua aurkeztu du.

Nafarroako Gobernuak argitaratu du liburua, Panorama bildumaren barnean (43. zenbakia da) eta María Josefa Tarifa Castillak idatzi du. 9 euroko prezioan dago eskuragai Nafarroako Gobernuak argitalpenak saltzen diren ohiko lekuetan.

Aurkezpen ekitaldian 80 gonbidatu inguru izan dira, horien artean Pilar Germán monasterioiko abadea, María Josefa Tarifa liburuaren idazlea, Rafael Ayensa Tulebrasko alkatea eta Ricardo Fernández Gracia Nafarroako Unibertsitateko Ondare eta Nafarroako Artearen Katedrako zuzendaria.

## Argitalpena

Idazleak monasterioaren historia azaltzen du. Besteak beste, honako gaiak aztertzen ditu: zenobioaren sorrera, monasterioaren eraikuntzaren testuingurua, zistertarren krisia XIV. mendean Erregelaren gehiegizko lasaikeriaren ondorioz; bere berpizkunde material, espiritual eta artistikoa Aro Modernoan; egonkortasunaren mendeak (XVII eta XVIII), desamortizazioarekin izandako galerak eta zistertar arauen berreskurapena. Ibilbide historikoa egungo komunitatearen inguruko informazioarekin ixten du idazleak: 21 fededunek osatzen dute eta euren bizimodua ateratzeko hegazti-granja batean, ostatu batean, te pastak egiten eta erlauntz batean lan egiten dute.




Liburuaren aurkezpenera gerturatu diren pertsonen argazkia.

Bigarren kapitulan Tulebrasko zenobioaren eskumendeko monasterioen sorreraz hitz egiten du egileak. Aipatzekoa da Nafarroako monasterio honen eskutik hedatu zirela iberiar penintsula osora emakume zistertarrak. XII. mendearen bigarren erdian ordenak sei monasterio sortu zituen, eta zortzi mende beranduago beste zenobio bat eraiki zuen, honakoa Ekuadorreko Esmeraldas herrian, Hego Amerikan, Santa María de la Esperanza izenekoa.

Hirugarren kapitulua arteari eta espiritualtasunari eskainia dago. Hasiera batean, zistertar monasterioen arkitekturaz hitz egiten du, estetika soila eta biluzia agertzen duena eta ordenaren ideiekin bat egiten duena: isiltasuna, kontenplazioa, aszetismoa eta pobretasuna. Benito Deunaren Erregelak esaten zuenarekin bat, ordenaren eliz eta monasterioek ez zuten koadro eta eskulturarik, distrazioak ekiditeko.

Emakume zistertarren monasterioetako elizak gizonezkoenak baino dezente txikiagoak ziren. Hori dela eta, Tulebrasekoa Fitero, la Oliva eta Iranzuko monasterioak baino txikiagoa da. Izan ere, bere komunitatea pertsona gutxiagok osatzen zuten eta, ondorioz, baliabide gutxiago zituzten. Horregatik, ohikoa zen nabe bakarreko elizak egitea, Tulebrasekoaren antzera. Liburuaren egileak planoak, elizaren ezaugarriak eta beste gela batzuk aztertzen ditu.

## Galería de fotos



Liburuaren azala.



Barcina Lehendakaria Maria Josefa Tarifa, liburuaren idazlearekin.